




HILARIÓN ESLAVA

escuela de música - musika eskola
BURLADA BURLATA - VILAVA ATARRABIA



www.hilarioneslava.com

PLAN PEDAGOGIKOA

PLAN PEDAGOGIKOA

1. SARRERA

Burlata-Atarrabiako Hilarión Eslava Musika Eskolak, 1992ko abenduaren 21eko 421/1992 Foru Dekretuaren babesean, musika formazioa eman nahi die musikarako bokazio eta interes berezia duten pertsoneri. Musika eskolak Kultur zabalkundea helburu nagusi duten formazio zentruak izanik, ez da baztertzen lanbide interesa piztea eta prestakuntza sakonagoa ematea beren gaitasun eta interesagatik ikasketa arautuetara iristeko baldintzak eta borondatea dituzten ikasleei.

Musika formazio hau, hurrei zuzenduta dago, baina horregatik, ez ditugu gazteak eta helduak baztertzen. Prestakuntza honen barruan bi bide izanen dira:

- Musika praktikara hurbildu nahi duten pertsonentzako irakaskuntza, adin mugarik gabekoa. Musika praktikatzea perspektiba porfesionalik gabe.
- Izaera eta helburu profesionaleko irakaskuntza, beren gaitasun eta zaletasunagatik musika lanbidea bihurtu nahi duten ikasleei zuzendua.

2. HELBURUAK

“Musika Eskola” honek helburu hauek ditu:

1. Musikaren ezagutza eta estimazioa sustatzea, eta ikasleek musikari eta entzule bezala goza dezaten lortzea.
2. Musika-hezkuntzaren eskaintza zabala eta askotarikoa garatzea.
3. Era guztietako musika entzuteko interesa sustatzea, ikasleen espiritu kritikoa garatuz.
4. Banakako praktikara nahiz taldeko praktikara bideratutako musika tresnen irakaskuntza eskaintzea (betiere eskola honek eskaintzen dituen tresnak kontuan hartuta).
5. Praktika instrumentalaren osagarri den musika irakaskuntza eskaintzea (musika hizkuntza, etab.)

6. Ikasleengan ahots- eta musika-taldeetan parte hartzeko interesa sustatzea (bai musika-eskolan, bai beste musika-talde batzuetan).

7. Beren gaitasun eta interesagatik ikasketa arautuetara iristeko baldintzak eta borondatea dituzten ikasleei prestakuntza sakonagoa ematea, eta, hala badagokio, maila guztietan irakaskuntza horretara iristeko estimulua eta prestakuntza egokia ematea.

8. Musika herri-kulturan eragin positiboa izatea, ez bakarrik ikasleak prestatuz, baita musika gizartean zuzenean hedatuz ere, musika-taldeen jarduera publikoaren bidez.

3.- IRAKASKUNTZAREN ANTOLAKETA

- Zuzendaritza Taldea: zuzendariak, ikasketaburuak eta idazkariak osatzen dute, mintegiak koordinatzen dituzte, jarduerak, trukeak, kontzertuak, ikastaroak eta abar programatzen dituzte.

- Mintegiak:

1. Musika hizkuntzari buruzko mintegiak eta musikaren eta mugimenduaren hastapenei buruzko mintegiak, irakasgai horiek ematen dituztenen arteko koordinazioaz arduratzeko.
2. Praktika instrumentalaren mintegiak, talde instrumentalak eta bokalak koordinatzeaz arduratzen direnak.
Mintegi horiek ikastetxearen beharren arabera bilduko dira eta, aldi berean, elkarrekin koordinatuko dira.
 - Irakasleen klaustroa: irakasleen klaustroa hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez.

4.- IRAKASGAIEN DESKRIBAPEN OROKORRA

- MUSIKAREN ETA MUGIMENDUAREN HASTAPENAK

Astean 2 ordu izanen ditu klase kolektiboetan. Taldeen ratioak 15 izango dira gehienez eta 8 gutxienez, ikasle bat gehiago edo gutxiago izan daiteke kasu berezien arabera.

- MUSIKA-HIZKUNTZA

Astean 2 ordu izanen ditu klase kolektiboetan. Talde horiek 19 izanen dira gehienez eta 10 gutxienez. Kasu jakin batzuetan ratio horiek aldatzeko aukera aztertuko da salbuespen gisa, baina inoiz ez dira bi

ikasle baino gehiago aldatuko, ezta 20 ikasle baino gehiago ere gela bakoitzean.

Bigarren zikloan, musika hizkuntzako talde berezi bat prestatzen da urtero, Pablo Sarasate kontserbatorioko erdi mailako sarrera azterketarako prestatzeko, astean 2 orduz. Talde horretako ikasleak 8 ikasle edo gutxiagora iristen badira, astean klasea ordu bat eta 30 minutukoa izango da.

Halaber, ikasle helduentzako berariazko lerro bat dago, astean ordu bat musika hizkuntzan ematen duena. Ikasle heldu horiek musika-hizkuntzako irakasgaia bakarrik egin dezakete, hala eskatzen badute.

•AHOTS-TALDEA

Irakasgai hau bi ikasturtetan egin beharko da, Musika Hizkuntzako 1. zikloa, astean ordubetez.

•INSTRUMENTUA

Akordeioa, kantua, klarinetea, zeharkako flauta, gitarra, oboea, perkusioa, pianoa, saxofoia, tronboia, tronpeta, txistua, biolina, biolontxelo, bonbardino, trikitixa, panderoa, gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa, bateria eta gaita.

- 1. zikloa: astean 30 minutu klase indibidualetan.

- 2. zikloa: 40 minutu astean klase indibidualetan.

- 3. zikloa: 40 minutu astean klase indibidualetan.

•INSTRUMENTU-TALDEAK:

1. Akordeioa,

2. Txistua,

3. Gitarra,

4. Trikitixa eta panderoa, etab.

5. Eskolania.

6. 1. eta 2. Ahots Taldeak.

7. Banda eta Banda Txiki

8. Hari-taldea

9. Konboak.

10. Orkestra.

11. Big Band

12. Piano osagarria.

Irakasgai bakoitzeko programazioak, ikasturte eta zikloka sekuentziatutako helburuak, kontzeptuak, prozedurak eta ebaluazio irizpideak jasotzen dituztenak, urtero berrikusiko dira eta eskatzen duenaren eskura egongo dira.

6.- MUSIKA ESKOLAN PLAZA ONARTU ETA GALTZEKO IRIZPIDEAK.

ONARPENA

Hasierako zikloa honela banatuko da:

- 1. hastapena: 4 urte
- 2. hastapena 5 urte
- 3. hastapena 6 urte

Lehen Zikloan sartzeko, eta Musika Eskola honetan Hastapen Zikloa ikasi badute, irakaslearen irizpideak baloratuko dira eta lehentasuna izango dute Musika Eskolan ikasi ez duten ikasleen artean.

Musika Eskolan lehen aldiz hasten diren ikasleentzat, plaza hutsen arabera onartzeko irizpideak ezarriko dira.

Aldez aurreko musika ezagupenak dituzten 8 urtetik gorako ikasleek maila proba bat egingen dute, musika hizkuntzako zein kurtsotan matrikulatu behar den jakiteko. Musika-tresnaren kasuan, banakako klaseak direnez, irakasleek erabakiko dute zein kurtsotan matrikulatu behar den.

Hirugarren zikloaren kasuan, 4 urteko iraupena izango du, eta ikasleak eskatu eta irakasleak oniritzia eman ondoren luzatu ahal izango da, baldin eta matrikulatu ondoren plaza hutsak geratzen badira.

PLAZA GALTZEA

Ziklo bakoitzerako ezarritako urteetan ikasleak ziklo horretan proposatutako ezagutzak bereganatu ez baditu, ikasleak plaza galduko du. Hirugarren Zikloko ikasleentzat, ziklo horretan erabakitakora joko dugu. Ikasle batek ez badu justifikatzen ikasturte bateko klaseen %50era joatea, plaza izateko eskubidea galduko du.

7.- SARIAK ETA DIPLOMAK

DIPLOMAK

Ziklo bakoitzaren amaieran sortuko dira, eta ikasleak egindako lanaren pizgarri eta aintzatespen gisa balioko dute, baina ez dute balio ofizialik izango.

Halaber, urtero, "HILARIÓN ESLAVA SARIA" egingo da, Burlatako musikari ospetsu horren omenez. Sari honetara Bigarren zikloa amaitu eta irakaslearen ustez programa ongi interpretatzeko prestakuntza ona daukaten ikasleek partu hartu dezakete.

Saria 360 € eta diploma da.

=====
=====

1994/04/25EAN PATRONATUAK EGINDAKO BILERAN ONARTUA

1996/12/12AN PATRONATUAN ALDATUA ETA ONARTUA

1997/05/15EAN PATRONATUAN ALDATUA ETA ONARTUA

2005/04/12AN PATRONATUAN ALDATUA ETA ONARTUA

2008/01/31N PATRONATUAN ALDATUA ETA ONARTUA

2014/01/28AN PARTZUERGOAN ALDATUA ETA ONARTUA

2015/12/28AN PARTZUERGOAN ALDATUA ETA ONARTUA

2020/12/17AN PATZUERGOAN ALDATUA ETA ONARTUA